

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	AURRERAKO MOXALEN IDENTIFIKAZIOA, MARKATZEA, ELIKADURA ETA ZAINKETAK	Iraupena	60
		Espezifikoa	
Kodea	UF0376		
Lanbide-arloa	NEKAZARITZA		
Lanbide-eremua	Abeltzaintza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Zaldi-hazkuntza	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Moxalak errapetik kentzeko eta aurrerako hazkuntzako jardueren kontrola eta antolakuntza.	Iraupena	150
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Moxalen maneia eta kokapena errapetik kentzerakoan eta aurrerako hazkuntzan.	Iraupena	90

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0534_3 MOXALAK ERRAPETIK KENTZEA ETA AURRERAKOEN HAZKUNTZAKO JARDUERAK KONTROLATZEA ETA ANTOLATZEA gaitasun-ataleko LB2 lanbide-burutzapenarekin, markatzeari eta identifikazioari dagokionez, LB6 lanbide-burutzapenarekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Moxalen identifikaziorako, markatzeko eta dagokion erregistroetan inskribatzeko ezinbesteko jardunak ezartzea.
- EI1.1 Iruzkin grafiko bat betetzeko ezinbestekoak diren moxalen kanpo-ezaugarri morfologikoak atzematea.
 - EI1.2 Ustiategiak moxalenzat aldez aurretik diseinatutako eta xedaturiko iruzkin grafikoko fitxak behar bezala betetzea.
 - EI1.3 Identifikazio- eta markaketa-sistema desberdinak moxalen zein gorputz-ataletan aplikatzen diren atzematea.
 - EI1.4 Moxalak identifikatzeko eta markatzeko baimendutako sistemen berezitasunak azaltzea, baita horiek aplikatzeko moduak, materialak eta ekipamenduak ere.
 - EI1.5 Moxalak beren arrazaren erregistro ofizialean inskribatzea izapidetzeko beharrezko dokumentazioa kudeatzea.
 - EI1.6 Moxalak beren arrazaren erregistro ofizialean inskribatzearen ondoriozko dokumentazio guztia interpretatzea eta artxibatzea.
 - EI1.7 Aurrerako moxalak identifikatzeko eta markatzeko, nekazaritzako eta abeltzaintzako industriaren sektorerako ingurumen-jardunbide egokien eskuliburuan, laneko arriskuak prebenitzeko araudian eta animalia-ongizatearekin lotutako jardun-irizpideetan jasotako espezifikazioak identifikatzea.
- A2: Aurrerako moxalen elikagaien, osagarrien eta elikadura-gehigarrien hornidura antolatzea eta gainbegiratzea, produkzio-fase bakoitzean horien elikadura-premiak asetzearren.
- EI2.1 Aurrerako moxalen elikadura-programa egiteko behar den informazioa interpretatzea.
 - EI2.2 Produkzio-faseetan aurrerako moxal bakoitzari edo horien taldeari hornitu beharreko elikagai-motak, osagarriak eta elikadura-gehigarriak atzematea.
 - EI2.3 Aurrerako moxalenzako elikagaien, osagarrien eta elikadura-gehigarrien hornidura-ekipamenduak deskribatzea, baita horien erregulazioa, garbiketa eta mantentzea ere.
 - EI2.4 Aurrerako moxalen elikadura osatzea derrigorrezkoa den kasuak adieraztea, baita kasu bakoitzerako osagarri eta gehigarri egokiak ere.
 - EI2.5 Aurrerako moxalei elikagaiak, osagarriak eta elikadura-gehigarriak banatzeko programa bat lantzea, urteko garaiaren arabera, eta animalien jardueraren eta egoera fisikoaren arabera, hornidura-ordutegiak eta kantidadea espezifikatzea.
 - EI2.6 Aurrerako moxalenzako pentsuak, belarrak, bazkak, osagarriak eta elikadura-gehigarriak biltegitratzeko eta kontserbatzeko irizpideak zehaztea.
 - EI2.7 Ustiategi bateko aurrerako moxalen elikadura-programaren kontrola egitea, anoen banaketa, ezaugarriak, kalitatea eta kantiitatea egokiak direla egiaztatuz.
 - EI2.8 Aurrerako moxalei elikagaiak, osagarriak eta elikadura-gehigarriak banatzeko, nekazaritzako eta abeltzaintzako industriaren sektorerako ingurumen-jardunbide egokien eskuliburuan, laneko arriskuak prebenitzeko araudian eta animalia-ongizatearekin lotutako jardun-irizpideetan jasotako espezifikazioak identifikatzea.
- A3: Aurrerako moxalak osasun-egoera onean mantentzeko egin behar zaizkien higiene-zainketa espezifikatzea eta ezinbesteko osasun-neurriak gainbegiratzea.
- EI3.1 Ustiategira aurrerako moxal berriak iristen direnean izan daitezkeen gaixotasunak sartzeko eta sakabanatzea eragozteko hartu beharreko higiene- eta osasun-jarraibideak zehaztea.
 - EI3.2 Aurrerako moxalei egiten zaizkien oinarriko garbiketa- eta higiene-lanak zehaztea.

- EI3.3 Animalia bizidunetan edo irudikatzen dituen grafiko batean, gorputz-atalak antzematea aurrerako moxalenzako tratamendu higieniko-sanitario desberdinak aplikatzeko.
- EI3.4 Aurrerako moxalei higie- eta osasun-neurriak aplikatzeko materialak eta ekipamenduak zehaztea, baita horien erabilera-moduak, funtzionamendua eta mantentzea ere.
- EI3.5 Ustiategiko aurrerako moxalenzako prebentzio-programa sanitarioa planifikatzea.
- EI3.6 Aurrerako moxalek izan ditzaketen gaixotasun jakin batzuen seinale eta sintoma nagusiak identifikatzea.
- EI3.7 Aurrerako moxalen zaintza-irizpideak, isolamendu-neurriak eta zainketa aringarriak zehaztea.
- EI3.8 Behar bezala betetzea aurrerako moxalei egiten zaizkien higie- eta osasun-jardunen erregistroak, ustiategian ezarritako protokoloen arabera.
- EI3.9 Aurrerako moxalak dituzten zaldi-abeltzaintzako ustiategiarako biosegurtasunari buruz (gorpuen, hondakinen eta azpiproduktuen tratamendua) ezarritako oinarriko gomendioak definitzea.
- EI3.10 Aurrerako moxalen higie- eta osasun-jardunetarako, nekazaritzako eta abeltzaintzako industriaren sektorerako ingurumen-jardunbide egokien eskuliburuan, laneko arriskuak prebenitzeko araudian eta animalia-ongizatearekin lotutako jardun-irizpideetan jasotako espezifikazioak identifikatzea.

Edukiak

1. Zaldi-aziendako aurrerako hazkuntzako animalien ezaugarri morfologikoak.

- Aurrerako moxalen kanpoaldea.
- Aurrerako moxalen gorputz-atalak: zona sentikorrek. Akatsak eta tarak.
- Aurrerako moxalen ilajeak eta ileak: kolorazioak eta berezitasunak.
- Aurrerako moxalen ezaugarri morfologiko bereizgarriak zaldi-arraza nagusietan.

2. Zaldi-aziendako aurrerako hazkuntzako animalien ezaugarri fisiologikoak.

- Aurrerako moxalen digestio-aparatuaren fisiologia: ezaugarri morfologikoak eta funtzionamendua.
- Aurrerako moxalen arnas aparatuaren fisiologia: ezaugarri morfologikoak eta funtzionamendua.
- Aurrerako moxalen zirkulazio-aparatuaren fisiologia: ezaugarri morfologikoak eta funtzionamendua.
- Aurrerako moxalen lokomozio-aparatuaren fisiologia: ezaugarri morfologikoak eta funtzionamendua.
- Aurrerako moxalen ezaugarri fisiologiko bereizgarriak zaldi-arraza nagusietan.

3. Zaldi-aziendaren aurrerako hazkuntzako elikadura.

- Elikagaien printzipio nutritiboak: ezaugarriak.
- Elikagaien digerigarritasuna moxal gazteetan.
- Aurrerako moxalenzako elikagai-motak.
- Osagarrien eta gehigarrien ezaugarriak eta garrantzia aurrerako moxalen elikaduran.
- Aurrerako moxalenzako elikagaiak, osagarriak eta elikadura-gehigarriak banatzeko, kontserbatzeko eta biltegitratzeko metodoak, ekipamenduak eta jarraibideak.

4. Aurrerako moxalen higie-zainketak.

- Aurrerako moxalen garbiketa eta higie orokorra: dutxa, eskuilatzea, zurden eta buztanaren korapiloak kentzea eta orraztea, eta apoen zainketak.
- Aurrerako moxalenzako zainketa-jarraibideak eta higie-tratamendu espezifikoak.
- Aurrerako moxalen zainketarako metodoak, ekipamenduak eta instalazioak.
- Aurrerako moxalenzako higie-zainketen erregistroak: datuak jasotzea eta kontrolatzea.
- Aurrerako moxalen zainketarako eta higieerako produktuen erregistroa: horien izakinen kontrola eta jarraibideak.

5. Osasun-alterazioak eta derrigorrezko osasun-jardunak zaldi-aziendako aurrerako hazkuntzako animalientzat.

- Gaixo dauden aurrerako moxalak identifikatzea eta detektatzea: gaixotasun-seinale eta -sintoma nabariak. Lesio eta zauri ohikoenak. Ohiko prozesu patologikoak.
- Aurrerako moxalenzako tratamendu zootekniko prebentiboak: horiek aplikatzeko maiztasuna, baliabideak eta moduak.
- Aurrerako moxalenzako tratamendu propedeutikoak eta terapeutikoak: horiek aplikatzeko maiztasuna, baliabideak eta moduak.
- Txertoak jartzeko eta barne- eta kanpo-parasitoak hiltzeko programak aurrerako moxalenzat: horiek aplikatzeko maiztasuna, baliabideak eta moduak.
- Aurrerako moxalei egindako tratamendu sanitarioen erregistroak: datuak jasotzea eta kontrolatzea.
- Medikamentuen erregistroa: horien izakinen kontrola eta jarraibideak.

6. Zaldi-aziendako moxalen identifikazioa eta markatzea.

- Izaera naturalen iruzkin bidezko identifikazioa.
- Gailu elektronikoen bidezko identifikazioa.
- Markatzea: su-markak, tatuajeak eta bestelako sistemak.

7. Zaldi-aziendako moxalen erregistroa eta inskribatzea.

- Moxalak arraza bakoitzaren liburu genealogikoetan inskribatzeko araudi erregulatuak.
- Moxalak erregistroetan eta liburu genealogikoetan inskribatzeko ezinbesteko dokumentazioaren kudeaketa.

8. Moxalak dagokion erregistroetan inskribatzean eta horien elikaduraren eta zainketen antolakuntzan eta kontrolean aplikatutako informatika.
- Material informatikoaren maneiua.
 - Jarduerarekin lotutako programa informatikoen ezagutza eta maneiua.
9. Zaldi-aziendako aurrerakoien hazkuntzako animalien zainketarekin eta higiene- eta osasun-jardunekin lotutako araudi erregulatzailerak.
- Ingurumen-babesa
 - Lan-arriskuen prebentzioa
 - Animalien ongizatea.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Zaldi-hazkuntza